

Meñaka

Aurkibidea

Udalerria: Meñaka

Sarrera



Mungialdeko Uribe azpi-
eskualdeko udalerrri hau lau
auzo nagusik osatzen dute:
Mesterika, Meñakabarrena,
Ametzaga eta Emerando.
Bermeo du iparraldean,
Mungia mendebaldean, Fruiz
hego-mendebaldean eta
Arrieta hego-ekialdean.

- **Biztanleak:** 726
- **Euskaldunak:** %75,23

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**
- Pasarteak: **28**
- Transkribatutakoak: **1**

- Audioak: **0**
- Bideoak: **28**

Proiektuak

- Bermeoko ahotsak
- Dialektologia-EHU

Hizlariak

Juli Baraiazarra

Balentina Elortegi Batiz (1924-2013)



1924. urteko San Balentin egunean sortu zen Emerando auzoko Bengoetxe baserrian. Gurasoak ere auzo berekoak zituen, baina aita barik hazi ziren etxeko 5 alabak.

Meñakako eskolara joan ostean, 12 urte ingurugaz Bilboko Gran Viara joan zen neskame urtebeterako. Gerra Zibilean behiak hartu eta Urduliz, Areea eta Somorrostrora joan ziren. Handik bueltatu eta baserriko lanei, beraien etxean zein alogeran, ekin zien. 23 urtegar Bermeoko Mañu auzoko Ereñotzagara ezkondu zen eta ordudanik bertan egin zuen bizimodua; hala ere, bere etxeko euskara bizi-bizi mantendu zuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Plazara hamar urterekin

- **Hizlaria(k):** Elortegi Batiz, Balentina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** MNK-001/010
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:15:51. **Bukatu:** 00:18:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
 - Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena:** Amak lan gogorrek egiten zituen: artoa jorratu, batu, erre. Balentina hamar urterekin joaten zen bendeja saltzera Mungiara nahiz Bermeora, auzoko batekin. Bezperako esnea, indabak eta arrautzak saltzen zituzten plazan. Amari ematen zion plazan ateratako dirua. Gizon jornalariak behar izaten zituzten belarretan laguntzeko, azpiak egiteko behiei.

Transkripzioa

-Ta zure amak zer eitten eban, bendejiegaz...

-Bai, bendejiegaz. Ta ostantzien artoak be bai erain ta... Artoak jorratu ta, artoak helduten dienien batu ta, harek tosteu laban ta. Bihar penasak, baia batan batek ein behar ttuzen ta...

-Nora joaten ziñien saltzen?

-E?

-Nungo plazara joaten ziñien? Edo ama nora joaten zan?

-Ama iñora bez. Etzien. Neu joaten nintzen bendejie saltzien; hamar urtegaz; euzoko bategaz, Teresa izena dekona. Ontxe hil da ha. Hiruren bat urte edo [...] ha hil dana. Ta oin aitzie dau etzien, Matilde izena dakona, Venezuelan edo hor egon zan hainbeste urte ta. Ta oin etzera etorritte dau aspaldiko urtitan.

-Ta handik nora: Mungira edo Bermiora?

-Ha Bermiora handik, neu be bardin, Mugidxera nahi Bermiora joaten zan. Bermiora joaten giñen, jeneral. Esnie, bezperakue eratzitte, goixaldien eratzitte behidkek, esnie saltzien Bermiora. Ta biberak, arrotzak eta, inddabak eta, ba haulakuek be bai.

-Etzerik etze edo plazara?

-Plazara. Goiko plaza zaharrera lehelengo ta gero bihan on da, ba plazie. Ta plazara etorten zien jarrie hartute henbrak esnien bile. Ta geuzek erosten be bai. Oin be etorko die, plazie aparte dau ta.

-Ta horregaz dirutxugaz zer erosten zendun?

-E?

-Horregaz diruegaz zer erosten zenduen?

-Amari entrega. Alagorekoak ekar bihar izeten gendun azpidxek, azpidxek imitteko, ohie imitteko behidxeri. Eta alagorekoak be bai bihar. Bai, ta gero gurdidxen ekarri eitten zan.

-Alagoran okitzen zenduen?

-Alagorekoa esaten jako jorneruri, ta harek batzen zauen ta geu behidxekaz joan ta ekarri, harek kargaten euskun ta.

-Erosiko zenduen Bermion olixue edo azukerie edo holako...

-Bai, erosten gendun, dendatan. Orduen be [salduten da] ta bihar dan gauzie.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Zorritz beteta (MNK-001/002)

Ahizpetatik bi eskolara joaten ziren eta beste biak etxean geratzen ziren amari laguntzen, txandaka. Gero, auzoko etxe batera bidali zuen amak neskame; etxera joan zen batean amak zorritz beterik aurkitu zuen eta etxera itzuli zen.

2. Meñakako eskolara (MNK-001/003)

Eskolarako ogi ritxe bana eta txokolate ontza bana ematen zien. Sagarrak egonez gero, saskian eramaten zituzten. Meñakara joaten ziren eskolara; etxera itzulitakoan eguerdiko lapikokoa jaten zuten meriendaren orde. Gustura joaten ziren, baina egunero ezin joan. Kanpokoak ziren maisu-maistrak.

3. Errekreoko jolasak (MNK-001/004)

Errekreoaan olgetan aritzen ziren: neskak neskatarara. Lurrean harria botatzen edo marroka (elkar harrapatzen).

4. Neskame Bilbon (MNK-001/006)

Neskame joan ezean, ez zekiten erdararik. Aberatsen etxera, Bilboko Gran Vía-ra joan zen neskame hamabi-hamahiru urterekin. Bertan ikasi zuen egin behar zuena: umeen ardura zuen. Amari ematen zion irabazitako dirua. Gastatzekotan, ezkutuan egiten zuen, amaren errietarik ez izateko.

5. Bilboko etxeko lanak (MNK-001/008)

Bilbon neskame zegoela, zortzi egun opor izan zituen. Bilbon, goizean goiz Plaza Berrira joaten zen barazkiak erostera. Bi neskame ziren: bestea sukaldeaz eta garbiketaz arduratzen zen; baina sarritan Balentinak egin behar izaten zuen garbiketa: hautsa kendu, lustrea jo, neskameen eskailera garbitu. Ilogailua bazegoen, baina ezin zuten erabili umeekin joan ezean.

6. Ahizpa guztiak kriada (MNK-001/009)

Urtebete egon zen neskame Bilbon. Ahizpak ere neskame joan ziren. Aitarik ez zutenez, amari lagundu beharra zegoen.

7. Baserriko lanen aldaketa (MNK-001/012)

Orain traktoreak daude. Lehen behiekin egiten zuten lan. Gurdia lotuta edo goldea lotuta.

8. Artoa eta indaba ereiten zuten (MNK-001/013)

Artoa edo indaba ereiten zuten; artoa jorratu, batu, zapak kendu, erre labean eta errotara eramane ehotzeko. Meintxako errotara eramaten zuten artoa.

9. Somorrostrora ebakuatuta (MNK-001/014)

Gerra sasoiaren ez zuten artorik erein. Alde egin behar izan zuten. Soldaduek neskei bularrak ebakitzen zizkietela esan zieten. Lehenengo Urdulizera joan ziren behiekin, arto irin apur bat hartuta gurdian. Handik Areetara eta Somorrostrora. Han meatzetan igarotzen zuten gaua.

10. Pixontziak kakaz beteta aurkitu zituzten (MNK-001/016)

Itzuli zirenean ebakuatuta egotetik, aitita soroan artoa ereiten ari zen, kezkatuta, beste senideekin batera ez zirelako itzuli. Etxeko arropak eramanda eta pixontziak kakaz beterik aurkitu zituzten. Ama eta bost alabak joan ziren eta halaxe etorri, eramane zituzten behiekin batera.

11. Errazionamendua (MNK-001/020)

Errazionamenduan artoa, indaba eta garbantzia banatzen zen. Ogia izaten zutela dio.

12. Errotak eta artoa (MNK-001/021)

Artoa errotara eramane baino lehen, lan handia izaten zen, labean erre eta garandu egin behar zen. Zati bat utzi behar zitzaion errotariari. Kutxan gordetzen zen irina, ondo sakatuta. Irinarekin morokila egiten zuten eta horrekin taloa egiten zen. Ogia erosi egiten zuten.

13. Jornalariak laguntzen (MNK-001/023)

Jornalariak izaten zituzten lanerako: laberako otea eta egurrak ebakitzeko. Etxeko emakumeek ere egiten zituzten gizonen beharrak. Azpigarriak kargatzen ere aritzen ziren.

14. Auzora txakur handia irabaztera (MNK-001/024)

Auzora joaten zen lanera diru apur bat irabaztera.

15. Txerria urte guztirako (MNK-001/025)

Urterako hiltzen zen txerria. Auzokoaren laguntzaz hiltzen zuten, eta odolkiak egiten zituzten. Laguntzera etortzen zirenei odolki batzuk ematen zitzaizkien. Gainerakoa etxerako. Ez zuten egun berezirik aukeratzen txerria hiltzeko; emakumearen hilekoari ere ez zioten jaramonik egiten.

16. Behiak Bilboko hiltegia (MNK-001/026)

Behiak Bilboko hiltegia bidaltzen zituzten norbaiti ordainduta.

17. Oilo pareta abadeari (MNK-001/027)

Ezkontzeko bezperan oilo pareta ematen zitzaion abadeari.

18. Abadearentzako artoa edo garia (MNK-001/028)

Abadeak gizon bat bidaltzen zuen kobratzera, garia edo, artoa edo. Antzina orain baino gehiago joaten ziren mezatara.

19. Lehenengo jaunartzea (MNK-001/029)

Dotrina ondo ikasita egiten zuten lehenengo jaunartzea.

20. Igandeetan Larrauriko erromeriara (MNK-001/030)

Erromeriara joaten ziren, baina hamarretarako etxera. Larraurira joaten ziren igandeetan; beste leku batzuetako jaiak izanez gero, hara. Larrauriko erromerian ezagutu zuen senarra. Etxera laguntzen zion. Hogeita hiru urterekin ezkondu zen.

21. Dantzarako "mesedez" (MNK-001/032)

Zabaletakoa egiten zuten. Bozgorailua edo soinua jotzen egoten ziren erromerian; mutilek ordaintzen zuten. Dantzan egiten zuenari kobratzen zioten, txakur handi bat edo bi. Dantzarako "mesedez" eskatzen zuten mutilek.

22. Domeketan domeketako arropa (MNK-001/033)

Domeketarako domeketako arropa zuten. Eurria izanez gero, zapatak, eta, bestela, abarketak. Erromeriarik politena Emerandokoa izaten zen. Ingurukoak joaten ziren.

23. Ezkondu, gosalduta eta Bilbora (MNK-001/034)

Ezkondu zirenean, neskato bat eta mutil bat joan zitzaien laguntzera. Fondan gosalduta eta Bilbora joan ziren bazkaltzera. Donostia inguruan ibili ziren hamabost bat egunetan ezkontza bidaian.

24. Sei seme-alaba (MNK-001/035)

Sei seme-alaba izan ditu, bizkiak azkenak. Azkena hil egin zitzairen lau hilabeterekin.

25. Etxeko erremedioak (MNK-001/036)

Tripako minentzat kamamila hartzen zuten. Gripea izanez gero, "plegaziñoa" asunekin eginda, eta ohean egonda kentzen zen. Aspirina edo, egoten zen hagineko minarentzat. Zaldarrak sendatzeko enplasto belarrak. Sugerren batek ziztatuz gero, injekzioa eman behar zen.

26. Medikua eta albaitaria (MNK-001/037)

Medikua behar zenean, kontsultara joaten ziren abisua ematera, handik etxera joateko. Urteko ordaintzen zitzaion. Albaitariari berdin.

27. Ez emaginik, ez medikurik erditzean (MNK-001/038)

Lehenengo umea erditzean bakarrik izan zuen partera baten laguntza.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com